

II. ERANSKINA: IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

A) FAMILIA-UNITATEAREN URTEKO ERRENTA (kontzeptu metagarriak dira, harik eta ataleko gehienezko puntuazioa lortu arte).

- Puntuazioa, familia-unitatearen diru-sarrerei erreparatuta 0,5 puntu
- Eskatzailearen familia-unitateak 9172,80 euroko edo gutxiagoko diru-sarrerak eskuratzaren badiu. 2016 zerga- ekitaldian izandako zerga-oinarri orokorrari dagozkionak.
- Eskatzailea ez den adingabeko seme edo alaba bakoitzeko..... 0,25 puntu

Atal honetan
gehienez lor
daitekeen
puntu-kopurua:
1,5 puntu.

B) BIZILEKUAREN GERTUTASUNA (Kontzeptu hauek ez dira metagarriak)

- Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan izatea ikaslearen bizilekua..... 5 puntu
- Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakideren batean izatea ikaslearen bizilekua..... 2 puntu
- Eskatutako ikastetxea dagoen herrian izatea ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo..... Puntu 1
- Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo 0,5 puntu
- Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan izatea ikaslearen lantokia edo haren aitaren, amaren edo legepor ordezkariaren bizilekua..... 2 puntu
(Puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aita, ama edo lege-tutorea eskatutako ikastetxean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

Atal honetan
gehienez lor
daitekeen
puntu-kopurua:
5 puntu.

C) Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea (kontzeptu hauek ez dira metagarriak.

- Eskatutako ikastetxean edo atxikitakoren batean matrikulatutako neba edo arreba bat edo gehiago izatea..... 9 puntu
- Eskatutako ikastetxean lan egitea aitak, amak edo lege-tutoreak..... 7 puntu

Atal honetan
gehienez lor
daitekeen
puntu-
kopurua:
9 puntu.

D) BESTE IRIZPIDE BATZUK (kontzeptu hauek ez dira metagarriak).

- **Kategoria orokorreko familia ugariko kide izatea**..... Puntu 1
- **Kategoria bereziko familia ugariko kide izatea**..... 1,5 puntu
(Egoera hori ezin zaio familiako kide bati baino gehiagori zabaldu.)
-
- Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik:..... 1 1,5 puntu
-
- **Minusbaliotasuna izatea**
- Minusbaliotasuna ikasleak badu..... 2 puntu
- Minusbaliotasuna ikaslearen aitak, amak, lege-tutoreak edo neba nahiz arrebaren batek izatea..... Puntu 1
- %33eko edo handiagoko minusbaliotasuna izan behar dute goian adierazitako pertsonak.**
-
- Familia unitateko **kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izatea** Puntu 1
- **Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzaile onartu)**
“Eskatzailearen neba edo arrebaren bat Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako maila batzuk edo guztietan eskolatuta egon da ” 0,5 puntu
- “Plaza eskaera egiten den momentuan gurasoak lan egitea”*..... 0,5 puntu